Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko martxoaren 30a, asteartea — 59 — Martes, a 30 de marzo de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZKOITIKO UDALA

*Iragarkia*

2021eko martxoaren 12an Alkateak emandako dekretu bitartez, Covid-19 dela eta, ostalariek jasandako kalteei aurre egiteko eta beren jarduerak berraktibatzeko diru-laguntzen deialdia eta oinarriak onartu dira eta honen bidez argitaratzen dira:

*Azkoitiko ostalaritzarentzat diru-laguntzak, Covid-19 dela eta, dekretatutako itxieraren ondorioz jasandako kalteei aurre egiteko eta beren jarduerak berraktibatzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia.*

ARRAZOIEN AZALPENA

2020ko urriaren 25eko 926/2020 Dekretu bidez, alarma-egoera deklaratu zen Covid-19ak eragindako infekzio hedapena geldiarazteko, birusaren hedapenari aurre egiteko zenbait neurri hartu zirelarik.

2020ko azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuaren bidez, 926/2020 Dekretua aldatu zen. Bertan, besteak beste, ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera ezarri zen.

Azkoitiko udalarentzat ezinbestekoak dira ostalariak Azkoitiarentzat, beraien lanarekin bizitza, enplegua, ongizatea eta aberastasuna ematen baitiote herriari. Aldi berean, udalak jasotako informazioarekin hausnarketa sakona egin du herriko ostalarien eta jatetxeen egoera eta premiak zeintzuk diren jakiteko.

Hori dela eta, udalak nahi du ostalaritza enpresa ehunak eguneroko martxa hartu, aurrera egin eta euren negozioa berraktibatzeko, eta horretan laguntzeko helburuarekin, jasan dituzten kalte ekonomikoek negozioen jarraipena eta etorkizuna oztopatu ez dezaten eta, horrenbestez, jasandako kalte ekonomikoei aurre egiten laguntzeko, udala prest dago diru-laguntzak emateko.

Diru-laguntza honen onuradun izango dira 38/2020 Dekretuaren ondorioz itxita egon behar izan duten ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduak. Baita «eramateko» zerbitzua martxan izan arren, establezimendua bere horretan itxita izan dutenak ere.

Diru-laguntza honen onuradunak ez dira izango zabalik egon diren ogi salmenta eta kafetegi zerbitzua daukaten establezimenduak.

Gauzak horrela, 2021eko urtealdirako onartutako udal aurrekontuetan, diru-izendapenak ezarri ditu laguntzeko.

*1. Xedea.*

Diru-laguntza hauen xedea da Azkoitiko ostalaritza sektorea babestea eta zuzenean laguntza ekonomikoak ematea jarduerari eusteko eta establezimenduen itxiera saihesteko.

Laguntzak zuzenduta daude 38/2020 Dekretuaren ondorioz itxita egon behar izan duten Azkoitiko ostalaritzako eta jate-

## AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Anuncio*

Mediante Decreto de Alcaldía de 12 de marzo de 2021 se han aprobado las bases y la convocatoria de subvenciones para la reactivación de las actividades de hostelería para hacer frente a los perjuicios soportados a causa por la Covid-19 por lo que se procede su publicación:

*Bases y convocatoria de subvenciones para la hostelería de Azkoitia para hacer frente a los daños sufridos como consecuencia del cierre decretado por la Covid-19 y para reactivación de la actividad.*

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Mediante Decreto 926/2020, de 25 de octubre, se declaró el estado de alarma para frenar la propagación infecciosa por el Covid-19, adoptándose una serie de medidas para combatir la propagación del virus.

Mediante Decreto 38/2020, de 6 de noviembre, se modificó el Decreto 926/2020. Allí se estableció, entre otras medidas, el cierre total de establecimientos y servicios de hostelería y restauración.

Para el ayuntamiento de Azkoitia son imprescindibles los hosteleros para Azkoitia, ya que con su trabajo aportan vida, empleo, bienestar y riqueza al pueblo. Al mismo tiempo, el ayuntamiento ha realizado una profunda reflexión con la información recibida para conocer la situación y las necesidades de los hosteleros y restaurantes de la localidad.

Por ello, el Ayuntamiento quiere que el tejido empresarial hostelero vuelva a la marcha diaria, avance y reactive su negocio, y con el objetivo de contribuir a que los daños económicos que han sufrido no obstaculicen la continuidad y el futuro de los negocios y, por tanto, contribuir a hacer frente a los perjuicios económicos sufridos, el Ayuntamiento está dispuesto a conceder subvenciones.

Serán beneficiarios de esta subvención los establecimientos de hostelería y restauración que hayan tenido que permanecer cerrados como consecuencia del Decreto 38/2020. También aquellos que, a pesar de tener en marcha el servicio de «para llevar», han mantenido cerrado el establecimiento.

No serán beneficiarios de esta subvención los establecimientos con servicio de venta de pan y cafetería que hayan permanecido abiertos.

Así pues, en los presupuestos municipales aprobados para el ejercicio anual 2021 se han establecido determinadas consignaciones económicas para las ayudas.

*1. Objeto.*

El objeto de estas subvenciones es proteger y dar soporte económico de forma directa al sector hostelero de Azkoitia para mantener la actividad y evitar el cierre de establecimientos.

Las ayudas van dirigidas a los establecimientos de hostelería y restauración de Azkoitia que hayan tenido que permanecer

EK\CV GAO-I-2021-01883

txeetako establezimenduei. Baita «eramateko» zerbitzua martxan izan arren, establezimendua bere horretan itxita izan dutenei ere.

Horretarako aldizkakotasun izaerarik gabeko diru-laguntzak emango dira.

*2. Baliabide ekonomikoak.*

Deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak finantzatuko dira 2021eko Udal Aurrekontuan egokitu den 1.8000.481.431.50.02 2021 partidaren kontura. Partida horren hornidura 85.000 eurokoa izango da.

Eskaera guztien artean banatu beharreko diru kopurua partidaren hornidura baino handiagoa bada, berriro kalkulatuko da bakoitzari eman beharreko kopurua, jasotako eskaera guztiei aurre egin ahal izateko.

Diru-laguntzen guztizko bolumenak ez du adierazitako gordailua gaindituko.

*3. Pertsona eta erakunde onuradunak.*

Diru-laguntzaren onuradunak izango dira Azkoitiko ostalaritza sektoreko aktibitateak, 2020ko azaroaren 6ko Lehendakariaren 38/2020 Dekretuaren ondorioz ixtera behartuta egon direnak. Baita «eramateko» zerbitzua martxan izan arren, establezimendua bere horretan itxita izan dutenak ere.

Diru-laguntza honen onuradunak ez dira izango zabalik egon diren ogi salmenta eta kafetegi zerbitzua daukaten establezimenduak.

*4. Onuradunek bete beharreko baldintzak.*

Pertsona edo entitate bakoitzak bete beharreko baldintzak ondokoak dira:

— Azkoitian kokatutako ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu bat izatea.

— Jarduera ekonomikoa kontsumitzaileei zuzendutako lokal batean garatzea.

— Ekonomia Jardueran alta emanda egotea Azkoitian, gutxienez, 2020ko azaroaren 6an aurretik.

— Zerga obligazioetan eta ordainketetan egunean egotea Gizarte Segurantzarekin, Foru Ogasunarekin eta Azkoitiko Udalarekin.

— Besteren kontuko langile eta autonomoak, jarduerari lotuak, alta emanda egotea, gutxienez, 2020ko azaroaren 6an.

— Diru-laguntza hau aurkezteko epea bukatu aurretik, alta emanda egotea Ekonomia Jardueran eta berriz jarduera abian jartzea eta berari eustea gutxienez hilabetez, ez bada, arrazoizko justifikazioren bat.

— Udalak beharrezko deritzon informazio osagarria eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei.

*5. Laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa modua.*

Diru-laguntzak zuzenduta daude establezimenduaren funtzionamendu gastuak estaltzeko eta jarduerarekin jarraitzeko.

Establezimendu bakoitzak laguntza bakarra jasoko du.

A atala.

38/2020 Dekretuaren ondorioz itxita egon behar izan duten Azkoitiko ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduak:

— 1.200 euro jasoko ditu establezimendu bakoitzak.

cerrados como consecuencia del Decreto 38/2020. También aquellos que, a pesar de tener en marcha el servicio de «para llevar», han mantenido cerrado el establecimiento.

Para ello se concederán subvenciones sin carácter de periodicidad.

*2. Recursos económicos.*

Las subvenciones reguladas en la presente convocatoria serán financiadas con cargo a la partida presupuestaria 1.8000.481.431.50.02 2021 que se ha ajustado en el Presupuesto Municipal 2021, cuya dotación asciende a 85.000 euros.

En el caso de que la cantidad económica a repartir entre todas las solicitudes superara la dotación de la partida, se recalculará la cantidad a subvencionar a cada solicitante para poder hacer frente a todas las solicitudes recibidas.

El volumen total de las ayudas no excederá de la consignación señalada.

*3. Personas y entidades beneficiarias.*

Serán beneficiarias de esta subvención las actividades del sector de hostelería de Azkoitia que se han visto obligadas a cerrar a consecuencia del Decreto 38/2020, de 6 de noviembre de 2020 del Lehendakari. También aquellos que, a pesar de tener en marcha el servicio de «para llevar», han mantenido cerrado el establecimiento.

No serán beneficiarios de esta subvención los establecimientos con servicio de venta de pan y cafetería que hayan permanecido abiertos.

*4. Requisitos de las personas y entidades beneficiarias.*

Los requisitos a cumplir por cada persona o entidad son los siguientes:

— Disponer de un establecimiento dedicado a la hostelería y la restauración ubicado en Azkoitia.

— Desarrollar la actividad económica en un local destinado a las personas consumidoras.

— Estar dado de alta en Actividades Económicas en Azkoitia, en fecha anterior al 6 de noviembre de 2020.

— Hallarse al corriente en sus obligaciones tributarias y pagos en la Seguridad Social, Hacienda Foral y el Ayuntamiento de Azkoitia.

— Que los trabajadores por cuenta ajena y los autónomos Estar dado de alta, por lo menos, el 6 de noviembre de 2020, los trabajadores por cuenta ajena y autónomos vinculada a la actividad.

— Antes de finalizar el plazo de solicitud de esta subvención, estar de alta en actividades económicas, poner de nuevo en marcha la actividad y manteniéndola al menos durante un mes, salvo justificación razonable.

— El Ayuntamiento podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta información complementaria considere necesaria.

*5. Cuantía de la subvención y forma de pago.*

Las subvenciones están destinadas a cubrir los gastos de funcionamiento del establecimiento y la continuidad de la actividad.

Cada establecimiento recibirá una única ayuda.

Apartado A.

Los establecimientos de hostelería y restauración de Azkoitia que hayan tenido que permanecer cerrados como consecuencia del Decreto 38/2020:

— Cada establecimiento recibirá 1.200 euros.

EK\CV GAO-I-2021-01883

38/2020 Dekretuaren ondorioz «eramateko» zerbitzua martxan izan arren, establezimendua bere horretan itxita izan dutenak:

— 1.100 euro jasoko dituzte establezimendu bakoitzak.

B atala.

A atalaren arabera aurkeztutako eskaera guztiengatik diruz lagundu beharreko guztizko zenbatekoa kalkulatuta, bere zenbatekoa 85.000 € baino gutxiagokoa bada, deialdi honetara bideratutako kreditua agortu arte (85.000 €), eskaera egin duten establezimendu guztien jarduerari lotutako langile kopuruaren arabera banatuko da gerakina.

Langileen guztizko zenbatekoa kalkulatzeko norbere konturakoak eta besteren konturako langileak hartuko ditu kontuan.

Jardunaldi osoan lan egiten duen langileak langile oso bat bezala konputatuko du eta lan jardun partziala daukanak, lan jardunaren frakzioaren arabera.

Lotutako langileen guztizko kopurua kalkulatuta, gerakinarekin zatikatuko da eta establezimendu bakoitzari 2020ko azaroaren 6an baino lehenago lotutako langileen arabera jasoko duten zenbatekoa lortuko da.

Ikusi I. eranskina adibide gisa.

*6. Eskaeren aurkezpena eta tramitazioa.*

Establezimenduek atxikitu behar duten dokumentazioa, ondoren datorrena izango da:

— Eskabide-orria, behar bezala beteta eta sinatuta.

— Erantzukizunpeko adierazpena, oinarri hauetan ezarritako baldintza eta eskakizunak betetzen direla bermatuz, eta norbere konturako langileen kasuan, adierazi aktibitate horretan ari direla lanean (eskaera orrian burutuko da).

— Besteren konturako langileen kontratuak, hala badagokio.

— Gizarte Segurantzako kotizazioaren azken ordainketa.

— Gizarte Segurantzako kotizazio kontu baten kodean «alta emanda dauden langileen txostena» (ITA), 2020ko azaroaren 6ko datari dagokiona.

— Kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

* Udalak beharrezkotzat jotzen den beste edozein dokumentazio eskatu ahal izango du.

Eskabideak, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan aurkeztuko dira, besteak beste, Azkoitiko Udaleko web orriko tramiteak online atalaren bitartez (https://azkoitia.eus/udala/tramiteak) edo herritarren arreta zerbitzuan:

— Helbidea: Herriko plaza z.g. 20720 Azkoitia.

— Astelehenetik ostiralera: 7:30-15:30.

Oro har, onuradunek Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta aplikatu beharreko gainerako araudian eskatutako baldintzak bete beharko dituzte.

Eskatzaileari jakinarazten zaio Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo dituela datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik oinarri hauetan ezarritako ondorengo baldintzak. Eskatzaileek egiaztapen horren aurka egiteko aukera izango dute; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Los establecimientos de hostelería y restauración de Azkoitia que a pesar de tener en marcha el servicio de «para llevar», han mantenido cerrado el establecimiento como consecuencia del Decreto 38/2020:

— Recibirán 1.100 euros cada establecimiento.

Apartado B.

Totalizado el importe a subvencionar por todas las solicitudes presentadas en función del aparatado A, si el mismo es inferior a 85.000 €, el remanente se distribuirá en función del número de trabajadores vinculados a todos los establecimientos solicitantes hasta agotar el crédito destinado a esta convocatoria (85.000 €).

Para el cómputo total de trabajadores se tendrán en cuenta, tanto los trabajadores por cuenta propia como lo de por cuenta ajena.

El personal que trabaje a jornada completa computará como uno a jornada completa y los que trabajen a tiempo parcial, en función de la fracción de jornada.

Calculado el número total de trabajadores vinculados, el remanente se dividirá con éste y se obtendrá el importe a subvencionar a cada establecimiento en función del personal vinculado al mismo en fecha anterior a 6 de noviembre de 2020.

Ver el anexo I a modo de ejemplo.

*6. Presentación y tramitación de solicitudes.*

La documentación que deben adjuntar los establecimientos será la siguiente:

— Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.

— Declaración responsable, garantizando el cumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos en las bases, y en caso de los trabajadores por cuenta propia, indicar que desarrollan su trabajo en dicha actividad (se realizara en la hoja de solicitud).

— En su caso, contratos de los trabajadores por cuenta ajena.

— Último recibo de cotización a la Seguridad Social.

— «Información de trabajadores en alta» (ITA) en un código de una cuenta de cotización de la seguridad Social o correspondiente al 6 de noviembre de 2020.

— Documento que acredite la titularidad de la cuenta corriente.

* El Ayuntamiento podrá requerir cualquier otra documentación necesaria para la comprobación.

Las solicitudes podrán presentarse en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las solicitudes se presentarán en cualquiera de las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, entre otras, a través del apartado online de trámites de la página web del Ayuntamiento de Azkoitia (https://azkoitia.eus/udala/tramiteak) o en el servicio de atención ciudadana:

— Dirección: Herriko plaza s/n. 20720 Azkoitia.

— De lunes a viernes: 7:30-15:30.

Con carácter general, los beneficiarios deberán cumplir los requisitos exigidos por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio y demás normativa aplicable.

Se informa al solicitante, que el Ayuntamiento de Azkoitia va a verificar los siguientes requisitos establecidos en estas bases, desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. Los solicitantes tendrán la opción de oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberán presentar la documentación pertinente.

EK\CV GAO-I-2021-01883

Datu-bitartekaritzako plataformaren bidez eskatuko diren zerbitzuak:

— Enpresak Jarduera Ekonomikoan alta egotearen ziurtagiria.

— Ziurtagiriak, zerga obligazioetan, Gizarte Segurantzan eta Azkoitiko Udalarekin ordainketetan egunean egoteari buruzkoak.

— Laguntza eskatzen duen pertsonaren edo ordezkariaren nortasun-datuen kontsulta eta egiaztapena.

*7. Baztertuak.*

Deialdi honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira irekita egon diren ogi salmenta eta kafetegi zerbitzua daukaten establezimenduak.

Kasuren batean, jardueraren irekieraren inguruan, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa eta Udalak dituen datuen artean kontraesana badago, Udalak burututako inspekzioak kontuan hartuta ebatziko dira.

*8. Diru-laguntzen bateragarritasuna.*

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntza bateragarria izango da bai beste Herri Administrazioek emandako diru-laguntzekin bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanik.

*9. Gauzatzea eta proposamena.*

Udalaren Merkataritza sailak burutuko du diru-laguntzaren kudeaketa lana eta ebazpen proposamena prestatuko du. Ebazpen proposamena oinarri hauetan jasotako baldintza eta irizpideen arabera arrazoituko da, eta prozeduran egiaztatu beharko dira hartutako erabakiaren oinarriak. Diru-laguntzaren ebazpen proposamenak alderdi hauek jasoko ditu:

— Onuradunaren identifikazio datuak.

— Emandako zenbatekoa.

— Ordainketa sistema.

*10. Ordaintzeko modua.*

Udalak diru-laguntzak ordainduko ditu eskaerak ebatzi ondoren.

Diru-laguntzen zenbatekoak ordainduko dira bankuko transferentzia bitartez, adierazitako kontu korronte zenbakian.

*11. Ebazpena.*

Prozedura ebazteko organo eskuduna alkatea izango da.

Azkoitia, 2021eko martxoaren 15a.—Javier Zubizarreta Zubizarreta, alkatea. (1883)

I. ERANSKINA

— X establezimenduak diru-laguntza honen eskaera egiten du. Guztiz itxita egon da establezimendua eta norbere konturako langile bat, eta besteren konturako lanaldi osoko langile bat eta lanaldi erdiko langile bat daude jarduerari lotuak.

— Azkoitiko Udalak 40 eskaera onartu ditu guztira. Horietatik 35 guztiz itxita egon diren establezimenduenak eta 5 «eramateko» zerbitzua martxan izan dutenak baina establezimendua bere horretan itxita izan dutenak.

— Beraz, A atalari dagokion guztizko zenbatekoa honakoa da: 35 x 1.200 € + 5 x 1.100 € = 47.500 €.

— Gerakina: 37.500 €.

— Eskaera onartutako jarduerari lotutako establezimendu guztien langile kopurua = 200 langile (autonomo zein lanaldi osoko langileak). Beraz, langileko 187,5 €.

Servicios que se solicitarán mediante la plataforma de intermediación de datos:

— Certificado de alta en Actividades Económicas de la empresa.

— Certificados de hallarse al corriente de pagos respecto a las obligaciones tributarias con la hacienda foral, Seguridad Social y el Ayuntamiento de Azkoitia.

— Consulta y verificación de datos de identidad, del solicitante o representante.

*7. Exclusiones.*

Quedan excluidos del ámbito de aplicación de esta convocatoria los establecimientos que han permanecidos abiertos con servicio de venta de pan y cafetería.

En caso de contradicción entre la documentación aportada por el solicitante y los datos obrantes en el Ayuntamiento en relación con la apertura de la actividad, se resolverán teniendo en cuenta las inspecciones realizadas por el Ayuntamiento.

*8. Compatibilidad de las ayudas.*

Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o en las que se contemple la misma finalidad.

*9. Ejecución y propuesta.*

El departamento de Comercio del Ayuntamiento realizará la gestión de la subvención y elaborará la propuesta de resolución. La propuesta de resolución se motivará conforme a las condiciones y criterios recogidos en las presentes bases, debiendo acreditarse en el procedimiento las bases del acuerdo adoptado. La propuesta de resolución de la subvención contendrá los siguientes aspectos:

— Datos de identificación del beneficiario.

— Importe concedido.

— Sistema de pago.

*10. Forma de pago.*

El pago de las ayudas se realizará por el Ayuntamiento una vez resueltas las solicitudes.

Los importes de las subvenciones se abonarán mediante transferencia bancaria en el número de cuenta corriente indicada.

*11. Resolución.*

El órgano competente para resolver el procedimiento será la Alcaldía.

Azkoitia, a 15 de marzo de 2021.—El alcalde, Javier Zubizarreta Zubizarreta. (1883)

ANEXO I

El establecimiento X tramita la solicitud de estas subvenciones. Ha permanecido totalmente cerrado y tiene un trabajador por cuenta propia, otro por cuenta ajena a jornada completa y otro a media jornada vinculados a la actividad.

— El Ayuntamiento de Azkoitia admite 40 solicitudes. De los cuales, 35 de ellos han permanecidos totalmente cerrados y 5 con servicio «para llevar» pero han mantenido cerrado el establecimiento.

— Por tanto, por lo que corresponde al apartado A: 35 x 1.200 € + 5 x 1.100 € = 47.500 €.

— Remanente 37.500 €.

— Número de trabajadores vinculadas del total de establecimientos que sea admitido las solicitudes = 200 trabajadores (tanto autónomos como trabajadores a jornada completa). Por tanto, 187,5 € por trabajador.

EK\CV GAO-I-2021-01883

— X establezimenduak guztiz itxita egon denez eta langile autonomo bat, lanaldi osoko beste bat eta lanaldi erdiko beste bat dituenez, guztira, 1.200 € + 468,75 € = 1.668,75 € kobratuko lituzke.

— Dado que el establecimiento X ha estado totalmente cerrado y cuenta con un trabajador autónomo, otro a jornada completa y otro a media jornada vinculadas a la actividad, cobraría un total de 1.200 € + 468,75 € = 1.668,75 €.